



ETB

GUNE PREKARIOA

Abenduan Gasteiz eta Iruñean eta pasa den astean Iurretan bertan ETBren egoitzen aurrean kontzentrazio bana burutu badugu ere, berriro elkarretartzera behartuta gaude, egoera konpondu ezik okerrera jo baitu. Izan ere gaur bertan berriro Gasteiz eta Iruñean kontzentrazioak egiteaz gain, ETBko bi kontratetako langileek ordubeteko lanuztea deitu baitute.


ETBrentzako ENG deitzen diren zerbitzuak (albistegi eta programentzako irudia eta soinua hartzen duten bikoteak) betetzen dituzte langile hauek ia Telebistaren sorreratik gainera, eta bertako langileen baldintzekin parekatzeko bidea hartu baino, prekarietatea areagotu egin da. Aurrekoan zera aipatzen genuen, kontratu osoa eduki ezker 700 euroko hileko soldata gordinarekin «bizi» beharra, egun osoa sakeleko telefonoa piztuta gainera (zer esan praktketan edo bekadun bezala egon ezker). ETBk lehiaketa publikoa ere egin zuela jakinarazi genuen, prekarietatea areagotu eta kaleratzeak suposatuko zutela aurreratuz. Gaur dagoeneko zera ziurta dezakegu, Iruñean hiru langile kaleratuak izan direla eta Gasteizen hurrengo asteetan ere kaleratzeak egongo direla. Gainera, Araba eta Nafarrok ez da programetako zerbitzurik eskeini, eta herrialde horietan egin beharreko lanak, ETBren «logikaren» haritik, Bilbo zein Donostiatik egingo dira (gaurko lanuztea zapuzteko ere erabiliko dira).

ETBk erantzunkizun ia osoa du egoeran, bai baitaki informazioan liderrak lan berdinak egiten jarraitu beharko duela eta zerbitzu kopuru berdina beharko duela, baina eskeintzak minimoetatik jaitziz ordudako kontratazioak bultzatzen ditu prekarietatea handituz, «kalitatea», «autofinantzazioa» eta «zero defizita» goraiatuz.

Eta kontratetan sustatzen den prekarietatea ez dator bat hain zuzen ere ETBk behin eta berri «sektorea antolatu eta indartzeko» apustua egiten duela esaten duenarekin. Sektorea indartu baino, kanpoko enpresak erakarri nahi dituela ematen du, eskeintzarik merkeena onartzearekin bultzatzen, onartzen eta mehatxatzen duenean. Sektorea antolatzeaz ulertzen dutena hau ere izango da agian, gehiago pribatizatzea, iaz egin zuten bezala, hainbat Unitate Mugikorren zerbitzuak eta aurten Hemeroteka ia osoa alegia.

Etxe barruan ere txakurrak oinutsik, prekarietatea areagotzen dela ikusten da: musutruk lan egiten duten bekadunak, berragertzen hasten diren praktiketako kontratuak, lan harremanak zeharo desregulatu egiten dituzten autonomo faltsuen kontratuak...

Esan bezala, egoerak konponbidea hartu baino okerbidea hartu duela ematen du, eta kontratetako langileek mobilizazioekin jarraitu beharko baitute datorren asteazkenean ere, kaleratzeak eta lan baldintzak salatzeko, ardura nagusia ETB eta Administrazioarena delarik.





ETB ZONA PRECARIA

Si en diciembre en Gasteiz e Iruñea y la semana pasada en Iurreta, realizamos sendas concentraciones frente a las sedes de ETB, nos vemos obligad@s a concentrarnos de nuevo, ya que la situación, lejos de arreglarse, se ha agravado. El caso es que además de realizar hoy mismo concentraciones en Gasteiz e Iruña, l@s trabajador@s de las dos contratas de ETB han convocado paros de una hora.

Est@s trabajador@s llevan realizando para ETB los servicios llamados de ENG (los equipos que recogen la imagen y el sonido para informativos y programas) casi desde la creación misma de la Televisión de la CAPV, y lejos de haberse acercado sus condiciones de trabajo, se ha agravado su precariedad. La vez anterior comentábamos la situación de tener que «vivir» con sueldos brutos de 700 euros al mes, y además todo el día con el móvil encendido (situación agravada en el caso de becari@s y contratos en prácticas). También avisamos de la convocatoria de concurso público por parte de ETB, adelantando que podría suponer más precariedad y despidos. Hoy ya podemos asegurar que se han concretado tres despidos en iruñea y las próximas semanas también se producirán en Gasteiz. Por otra parte, no se han ofertado servicios de programas a Araba y Nafarroa, de tal modo que los trabajos en esos herrialdes se harán, siguiendo la «lógica» de ETB, desde Bilbo y Donostia (de hecho también se están utilizando ahora para reventar el paro).

ETB tiene casi toda la responsabilidad de la situación, puesto que es consciente de que el líder en información tendrá que seguir realizando los mismos trabajos y necesitando las mismas horas de servicios, pero bajando la oferta por debajo de mínimos fomenta las contrataciones por horas aumentando así la precariedad, mientras se enorgullece de la «calidad», «autofinanciación» y «déficit cero».

No coincide precisamente el fomento de la precariedad en las contratas con las declaraciones de querer «organizar y fortalecer el sector». Más que fortalecer el sector, parece que se pretenden atraer empresas de fuera al fomentar, aceptar y amenazar con aceptar la oferta más barata. Lo que entienden por organizar el sector seguramente también sea ésto, privatizar más, como hicieron el año pasado con varios servicios de Unidades Móviles y este año con casi todo el servicio de Hemeroteca.

Dentro de casa también se cuecen habas, y también se ve aumentar la precariedad: becari@s que trabajan gratis, contrataciones en prácticas que reaparecen, contrataciones de fals@s autónom@s que desregulan las relaciones laborales...

Como comentábamos, lejos de mejorar la situación ha empeorado, y l@s trabajador@s de las contratas seguirán movilizándose el próximo miércoles para denunciar los despidos y las condiciones laborales, cuya responsabilidad recae casi por completo en ETB y en la Administración.

